

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko otsailaren 21ean hartutako erabakiaren laburpena: kultur proiektu, ekitaldi eta sendotutako jaialdietarako dirulaguntzak emateko deialdia

BDNS (Identif.): 816809.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/816809>).

Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko otsailaren 21ean hartutako erabakiaren laburpena: kultur proiektu, ekitaldi eta sendotutako jaialdietarako dirulaguntzak emateko deialdia.

Lehena. Onuradunak

Dirulaguntzen ildo bakoitzaren berariazko oinarrietan zehazten diren helburuak betetzen dituzten programak edo jarduerak sustatzeko edo egiteko interesa duten pertsona fisikoa edo juridikoek eskatu ahalko dute dirulaguntza emateko, baldin eta haien jarduera esparrua Gasteizko udalerrian badute. Pertsona eta entitate eskatzaileek Arabako Lurralde Historikoan izan ahalko dute helbidea.

Bigarrena. Xedea

Laguntza-deialdi honen helburua hiriko kultur eskaintza zabaltzen eta hobetzen lagunduko duten kulturaren arloko sustapen-, sorkuntza-, prestakuntza- eta zabalkunde-ekimenetan laguntzea da.

Dirulaguntza jasoko duten kultur proiektuek irekiak izan beharko dute, udalerrian garatu eta gauzatu beharko dira eta gasteiztar guztiei zuzenduak izan beharko dute; esperientzia berriak izan ahalko dira, edo lehendik dauden programa, ekitaldi eta jaialdiei jarraipena eman, eta kulturaren arloren baten barrukoak izan beharko dute: prestakuntza, sormena, zabalkundea, ikerketa.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko otsailaren 21ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

200.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura. Entitate bakoitzak eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du proiekturako zenbatetsitako aurrekontu osoaren ehuneko 70 gaindituko.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hamabost egun baliodun, berariazko oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharramunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko otsailaren 21ean

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA